



6.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

GORENGOEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Gorengoan lehiaketa antolatu du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: Santo Tomas Lizeoa K.E.; Hondarribi F.E.; Astigarragako Mundarro F.K.E.; Axular K.K.E.; Oiartzun K.E.; Urnieta K.E.; Hernani C.D.; Sanpedrotarra F.E.; Ostadar S.K.T.; Roteta C.D.; Vasconia C.D.; Kostkas K.E.; Dunboa Eguzki C.D.; Allerru K.K.E.; Deusto Universidad S.S.C.D. eta Gure Txokoa K.K.E.

II TALDEA: Aretxabaleta K.E.; Zumaiako F.T.; Soraluze C.F.; Beasain S.D.; Ikasberri K.E.; Mondragon C.F.; Lagun Onak C.D.; Idiazabal K.E.; Aloña Mendi K.E.; Antzuola K.E.; Ilintxa S.D.; Getariako Keta F.T.; Tolosa C.F.; Billabona K.E.; Orioko F.T. eta Danena K.E.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Bi taldetan banaturik, puntuen bidez eta bi itzulietara jokatu da 30 jardunalditan.

-Taldea bakoitzeko lehenak (2) **igoko dira** Erregionalen Ohorezko mailara. Gorengoan Mailako txapelketa erabakitzeke, talde bakoitzeko lehenak, zelai neutralean eta partidua bakarrera finala jokatu dute.

Bigarren sailkatutakoek bi partiduko kanporaketa bat jokatu dute Erregionalen Ohorezko Mailan sor daitezkeen lekuak betetzeko.

-1.Erregional Mailara talde bakoitzeko azkeneko hirurak (2x3=6) **jaitsiko dira**.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa eta gehienez 7 ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek, posible izango dute, beraien partidua larunbata arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak

6) XEDAPEN OROKORRAK

A) “Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

a) 1. Erregionalen Mailako talde bat igota.

b) Gorengoren Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz, talde bakoitzean 14. postuan geratzen diren bi taldeen artean partida bikoitzera jokatu den kanporaketak erabakiko duena.

c) Eta horrela behin eta berriro.

B) Gertukotasun arazoengatik modu razionalean geografikoki bi talde edo gehiagotan banatuta dauden kategorietan honako legea beteko da: talde batean zein bestean eskubide berdinak eta aukera berdinak.

Gure lehiaketetan indarrean dagoen irizpide honen arabera, igoera edo kategorian geratze eskubideak **sailkapenean postu berean** geratu direnen artean jolastuko dira, beti ere hurrenezko goragoko kategorietan menpeko taldea edo talde babestua duten horiek alde batera utzita. Hau da, kasu guztietan, **lehen sailkatuak, bigarren sailkatuak, hirugarren sailkatuak** eta horrela segida jarraituz partidak beste taldean **postu berdina betetzen duten taldeen aurka jolastuko dituzte.**

Donostia, 2019ko abuztua
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Lehendakaria
Juan Luis Larrea Sarobe